



**GEROEA**  
B G A E

*2004*<sup>ko</sup>  
*Kudeaketa txostena*



# 2004ko Kudeaketa txostena

Aurreko ekitaldian bezalaxe, honako dokumentu honen bitartez 2004. urtean izan diren gertakaririk adierazgarrienak aurkezten dira, baita Erakundeak alderdirik garrantzitsuenetan izan duen bilakaera historikoa ere.

Oro har, Erakundearen ikuspegitik, 2004. urtea pozgarria izan da esparru finantzarioan, areagotu egin baita Erakundearen kapitalizazio-erritmoa eta gehitu egin baitira ordaindutako prestazioak. Ekarpenen atalean, aitzitik, aurreko ekitaldiko sektore berak mantentzen dira, eta aldaketa txikiak izan dira ekarpenen ehunekoetan; haatik, aurreko ekitaldian baino langile eta enpresa gehiagok egiten dituzte ekarpenak. Horixe bera gertatzen da legegintzako garapenarekin, Eusko Jaurilaritza Euskal Autonomia Erkidego osoan lanaren gizarte-aurreikuspena orokortzeko aukera emango duen plan bat garatzen ari den aren.

Mundu-mailako egoera ekonomikoak hobera egin du, baina hobekuntza hori ez da kontinente guztietan modu berean gertatu. Euroguneko barne-produktu gordina %1,6 hazi da, eta Amerikako Estatu Batuetakoa %3,7. Barruko eta kanpoko eskaria dira, hein handi batean, alde horien gakoak.

Nolanahi ere, ez dugu ahaztu behar ekitaldi honetan areagotu egin direla aurreko ekitaldian jada antzematen ziren desorekak, hala nola, lehengaien igoera handia –horien artean petrolioarena–, dolarra gainerako dibisekiko erortzea, Txinaren indarra, soldaten igoera, eta enplegua gehitzea. Testuinguru horretan, enpresen etekinek marka historikoak lortu dituzte, burtsa-merkatuetako bilakaerak islatzen duen moduan.

2004.urtean zehar ez da sektore berririk sartu, baina Gipuzkoan sektoreko hitzarmenik ez duten hiru enpresek barneratu dira; Lending Service, Manufacturas Oriá eta Aspace Viviendas y Residencias. Era berean, lau sektorek: Garbiketa, Hornitegiak, Fruta eta Barazkien Handizkariak eta Merkantzien garraioak beren ekarpenaren ehunekoa gehitu dute. Honetaz gain, Gipuzkoako sektoreko hitzarmenik ez duten zortzi enpresek ere areagotu egin dituzte beren ekarpenen ehunekoak %0,50 eta %1,00 bitartean: Kursaal producciones, Zahor, Itesa producciones, ITV Gipuzkoa, Lagun Izpi, Aspace, Manufacturas Oriá eta Clece. Ondoko taulan erakundearen parte hartzen duten sektoreak eta ekarpenen ehunekoak adierazten dira:

<b>Sektoreak</b>	<b>2004ko guztizko ekarpenaren %</b>
Metalgintza	<b>%3,5</b> aldaketarik gabe
Zeramika	<b>%3,5</b> aldaketarik gabe
Zuraren industria	<b>%2,0</b> aldaketarik gabe
Iragan-arloa	<b>%3,0</b> aldaketarik gabe
Okindegiak	<b>%1,2</b> aldaketarik gabe
Beira	<b>%3,5</b> aldaketarik gabe
Eraikuntza	<b>%2,5</b> aldaketarik gabe
Papera eta kartoia	<b>%1,2</b> aldaketarik gabe
Altzariak eta osagarriak	<b>%1,0</b> aldaketarik gabe
Ehun-arloko merkataritza	<b>%1,6</b> aldaketarik gabe

<b>Sektoreak</b>	<b>2004ko guztizko ekarpenaren %</b>
Larru-arloko merkataritza	<b>%1,6</b> aldaketarik gabe
Metal-arloko merkataritza	<b>%2,0</b> aldaketarik gabe
Garbiketa	<b>%2,5</b> %1,0eko gehikuntza
Hornitegiak	<b>%2,5</b> %0,5eko gehikuntza
Fruta eta Barazkien Handizkariak	<b>%1,5</b> %0,5eko gehikuntza
Merkantzien garraioa	<b>%1,5</b> %0,5eko gehikuntza
Lokalak, Ikuskizunak eta Kirola	<b>%0,5</b> aldaketarik gabe

2004. urtean zehar GEROA BGAE erakundera 130.000 langile bazkide baino gehiagok egin dituzte ekarpenak, langile hauek 9.301 enpresetakoa ziren.

Ekarpenak hazi egin dira ekitaldian, enpresa berrien sareraren ondorioz, zenbait aportazio portzentaien eta kontingentzia arruntan oinarrien igoeraren ondorioz. 2003an 58,27 milioi euroko kuotak izatetik, 2004an 62,22 milioi eurokoak izatera pasa gera, %6,78ko hazkundearekin.

GEROA BGAE erakundearen ondarea

ekitaldiaren amaieran 394,24 milioi eurokoa izan da eta zenbateko hau langileen artean banatzen da, ekarpenen proportzioaren arabera, aurreko ekitaldiarekiko %26,04 ko hazkundera lortuaz.

Ekitaldiaren amaieran, Entitateak 15,6 Milioi Euro mantentzen ditu Fondo Mutualean.

Ekitaldiko funtzionamendu eta amortizazio gastuak, langileek onartutakoak, batzbesteko kudeatutako ondarearen gaineko %0,283an aurkitzen da, eta geratzen diren gastu arruntak, Mutual Fondoan kontabilizaturiko zenbatekoak emandako interesekin konpentsatzen dira.

## EGOERA-BALANTZEA

2004ko abenduaren 31n, milioi eurotan.

### AKTIBOA

Ibilgetua	<b>704</b>
Inbertsioak	<b>411.880</b>
Hainbat zordun	<b>713</b>
Diruzaintza	<b>2.309</b>

**AKTIBOA GUZTIRA 415.606**

### PASIBOA

Fondo propioak	<b>373.413</b>
2004 ekitaldiko irabaziak	<b>27.318</b>
Arrisku Prest. Hornidura	<b>12.345</b>
Hainbat hartzekodun	<b>2.530</b>

**PASIBOA GUZTIRA 415.606**

## GALDU-IRABAZIEN KONTUA

2004ko abenduaren 31n, milioi eurotan.

### GASTUAK

Prestazioak, berrasegurua	<b>5.597</b>
Administrazio-gastuak	<b>1.322</b>
Inbertsio-gastuak	<b>5.326</b>
Hainbat eskubide bateratu	<b>56.625</b>

Ekitaldiko mozkina **27.319**


**ZORRAK GUZTIRA 96.189**

### SARRERAK


Ekitaldiko kuotak	<b>62.222</b>
Inbertsioen sarrerak	<b>33.212</b>
Arrisku Horn. soberakina.	<b>755</b>

**HARTZEKOAK GUZTIRA 96.189**


## MOZKINEN BILAKAERA



## 2004 LIKIDAZIO- BALIOAREN BILAKAERA



## ONDAREAREN BILAKAERA



## Inbertsio-zorroaren banaketa (%)

**2004. urtean burtsa-merkatuen joera positiboari eutsi zaio, aurreko ekitaldian baina mantoago izan bada ere.** Ibex-a %17,37 igo da eta aurreko ekitaldian %28,17 hazi zen; Eurostoxx-a, berriz, %7,31 igo da, eta 2003an %15,68 hazi zen; eta, azkenik, Nasdaq-a %10,44 hazi da eta aurreko ekitaldian %49,12 igo zen. Era berean, munduko bankuek ez dute politika bateratua jarraitu erreferentziazko interes-tasei dagokienez. Amerikako Estatu Batuetan, Amerikako Erreserba Federalak %2,25era arte gehitu zituen epe laburrerako interes-tasak. Europan, aldiz, Banku Zentralak aurreko ekitaldiko interes-tasari eutsi zion, hau da, %2ari, Eurogunearen hazkunde ekonomiko oso txikia izan baitzen. Epe ertain eta luzeko errenta finkoko merkatuetako egoera horren ondorioz, 2004. urtean, arras murriztu dira kredituko diferentzialak eta bonuen errentagarritasunak.

Hori dela eta, Geroaren kudeaketa-taldeak bere zorroaren dibertsifikazioa egokitu du, eta, horretarako, ekarpen berriak, errenta finkoaren errentagarritasuna, burtsa-merkatuen bilakaera eta horien arriskua hartu du aintzat. Ekitaldian gehitu egin da, batetik errenta aldakorrek inbertsioa eta dibertsifikazio geografikoa areagotu da, eta, bestetik, bonuen errendimendu eskasa kontuan izanik, murriztu egin da errenta finkoko ehunekoak, batez ere epe luzera. Dena den, Geroaren

ondarea, 2004ko ekitaldiaren amaieran, errenta finkoan, batik bat, dago inbertituta, %76,41 hain zuzen ere; aurreko ekitaldian, ordea, %81,97 zen. Errenta aldakorra %22,53ra gehitu da, eta 2003an, berriz, %15,85ekoa zen. Bestalde, zuzeneko inbertsioaren ehunekoak %0,49ra murriztu da, Promocés-eko salmentaren ondorioz. Haatik, Erakundeak, arlo horretan, garapeneko erronka estrategikoari eusten dio, eta datorren ekitaldirako eskuratzeko gehiago aurreikusi ditu. Urteko errentagarritasuna %8,01ekoa da, hau da, Erakundeak sortu zenetik %7,23ko errebalorizazio-tasa konposatua izan da.

Inbertsio-zorroa, ekitaldiaren itxieran, 407,34 milioi eurokoa izan da, kontabilizatu gabeko errenta aldakorrek gainbalioak eta likidezia barne –ez ordea errenta finkokoak–. Honakoa da Erakundearen inbertsio-zorrorako erabilitako irizpidea: errenta finkoko aktiboak eskuratu zireneko Barne Errendimenduen Tasaren arabera baloratzen dira, eta ez merkatuko prezioetan; bestalde, errenta aldakorra eta hainbat dibisetako posizioak hornitu egin beharko dira, baldin eta merkatuko trukea eskuratzeko-prezioa baino txikiagoa bada. Kotizatzen ez duten enpresetan egindako inbertsioa, aldiz, eskuratzeko-prezioan baloratzen da, Sozietatearen egoerak kontabilitateko balio teorikoan baloratzea gomendatzen duenean salbu.

### AKTIBO-MOTA

### ZORROAREN GUZTIZKOAREN GAINEKO %


Epe luzerako errenta finkoa	<b>%45,58</b>
Epe laburrerako aktiboak	<b>%30,83</b>
Errenta aldakorra	<b>%22,53</b>
Zuzeneko inbertsioa	<b>%0,49</b>
Likidezia	<b>%0,57</b>

## Prestazioak

2004. urtean 1.410 prestazio egin dira, 764 erretiroaren ondoriozkoak izan dira, 290 baliaezintasun iraunkor erabatekoaren ondoriozkoak, 154 baliaezintasun iraunkor absolutuaren ondoriozkoak, 7 baliaezintasun handiaren ondoriozkoak, 156 heriotzaren

ondoriozkoak, 19 Atzerapenak izenpearen bame (aurreko urtetako prestazioak) eta 20 lan-istripuen ondoriozkoak langilearen balieztasun handia edo heriotza sortu dutenak. Prestazio hauen zenbateko osoa 8,44 milioi eurokoa izan da.

### 2004 PRESTAZIOEN ONURADUNAK



Baliaezintasunen eta heriotzen ondorioz ordaindutako prestazioetatik 446 prestaziok estaldura osagarria izan dute, guztira 5,52 milioi eurokoa, 270 kapital gisa ordaindu dira eta gainerako 176 errenta gisa ordaindu dira. Errenta hauei aurre egiteko GRM/F- 95 taula aktuarialak erabili dira eta interes-tasa teknikoak %4koa izan da. Kontzeptu honen ondorioz

bere egindako konpromisoak 2001. ekitalditik 10,13 milioi eurokoak dira eta Biharko, Pentiso Fondoan eta Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Entitateen Aholkularitza, SAK baloratu ditu. Geroak, konpromiso hauek denboran zehar alda ez daitezke, %25eko hornidura zuzkitu du, zenbatekoa 2,5 milioi eurokoa izanik.

## Gertakizun aipagarriak

2005ko urtarriletik eta Erakundeko Gobernu Organuen adostasunez, biziarteko errenta moduan jasotzen diren prestazioak %2,67an birbaloratu dira, hartutako erabakien eta lotutako errentabilitatearen ondorioz. Bi azken urte hauetan biziarteko errentak %6,17an birbaloratu dira.

